

<p>7.3.- DEIALDIA 2026: DIRU LAGUNTZK IKASTEN ARI DIREN ARRASATEKO 25 URTETIK GORAKO LANGABEENTZAKO.</p>	<p>7.3.- CONVOCATORIA 2026: SUBVENCIONES A PERSONAS DESEMPLEADAS DE ARRASATE MAYORES DE 25 AÑOS QUE CURSEN ESTUDIOS.</p>
<p>Atarikoak.</p>	<p>Preámbulo.</p>
<p>Arrasateko Udalaren enplegu sailaren lan ardatz bat da udalerriko langabeak laneratzeko lagungarriak izan daitezkeen neurriak sustatzea. Ulertuta norberaren kualifikazio profesionala hobetzea estrategia eraginkorra izaten dela lana lortzeko, Arrasateko Udalak programa hau kaleratu du, lanik ez daukaten herritarrek, langabezia aldietan denbora eta ahalegina inbertitu dezaten beraien prestakuntzan, eta bere bitartez diru laguntzak emango dizkie lanbide heziketa ikasketak burutuko dituzten Arrasaten erroldatutako 25 urtetik gorako langabeei.</p>	<p>Uno de los ejes de trabajo del departamento de empleo del Ayuntamiento de Arrasate está orientado a promover acciones que contribuyan a facilitar el acceso al mercado laboral de las personas desempleadas del municipio. Entendiendo que la mejora de la cualificación profesional constituye una buena estrategia personal para acceder al empleo, el Ayuntamiento de Arrasate lanza este programa para promover que las personas desempleadas, durante los periodos de paro laboral, dediquen esfuerzo e inviertan tiempo en su propia formación, concretamente, incentivando económicamente a aquellas personas desempleadas mayores de 25 años, empadronadas en Arrasate, que cursen estudios de formación profesional.</p>
<p>1.-. Artikulua. Xedea</p>	<p>Artículo 1.- Objeto.</p>
<p>Deialdi honen helburua da erregulatzea diru laguntzen sistema bat, 25 urtetik gorako Arrasaten erroldatutako langabeei zuzentzekoa, beraien laneratzeko aukerak hobetze aldera arautu zein ez araututako lanbide prestakuntza ekintzak burutu dezaten laguntzeko.</p>	<p>El objetivo de esta convocatoria es regular el sistema de subvenciones dirigidas a incentivar la realización de acciones formativas en el ámbito de la formación profesional, tanto reglada como no reglada, a personas desempleadas mayores de 25 años, empadronadas en Arrasate, con el fin de mejorar su empleabilidad.</p>
<p>Diru laguntza izango da prestakuntza hori egiteko behar den gastuaren zati bat ordaintzeko, zeinak baldintza hauek bete beharko dituen:</p>	<p>La subvención estará destinada a cubrir parte del gasto requerido para la realización de la formación en cuestión, que deberá reunir los siguientes requisitos:</p>
<p>A) Prestakuntza ekintza diruz lagungarriak:</p>	<p>A) Tipo de acciones formativas subvencionables:</p>
<p>1. Prestakuntza ekintza ez arautuak, edozein maila eta materiakoak, ahalmena dutenak lanbide ziurtagiria emateko.</p>	<p>1. Acciones formativas no regladas de cualquier nivel y materia que estén facultadas para otorgar certificado de profesionalidad.</p>
<p>2. Prestakuntza ekintza arautuak, lanbide heziketakoak.</p>	<p>2. Acciones formativas regladas de formación profesional.</p>
<p>Programa honek ez ditu babestuko hizkuntzak ikasteko prestakuntza ekintzak.</p>	<p>Quedan excluidas las actividades formativas que tengan por objeto la enseñanza de idiomas.</p>
<p>Formakuntza ekintza bakoitzagatik programa honen deialdi bakarrean</p>	<p>Por cada acción formativa únicamente se podrá optar a esta subvención en una sola</p>

eskuratu ahalko da diru laguntza.	convocatoria.
B) Prestakuntza ekintzak non izango diren.	B) Ubicación de las acciones formativas.
Prestakuntza ekintzak emango dira Arrasaten kokatutako formazio zentroetan, edo, hura eskaini ezean udalerriko zentro batean, ikasketa horiek eskaintzen dituen EAEn edo Nafarroan kokatutako Arrasatetik hurbilen dagoen zentroan.	Las acciones formativas se impartirán en centros de formación ubicados en Arrasate, o, en caso de que ésta no se ofreciera en ningún centro del municipio, en el centro más cercano ubicado en la CAPV y Navarra que sí las impartiera.
C) Prestakuntza zentroyen izaera.	C) Naturaleza de los centros de formación.
Prestakuntza ekintzak garatu ditzakete JEZn formazio entitate moduan altan dauden entitateak, izan pertsona fisikoak ala pertsona juridikoak.	Las acciones formativas podrán ser desarrolladas tanto por personas físicas como jurídicas, siempre y cuando se hallen dadas de alta en el IAE como entidades de formación.
2. Artikulua.- Onuradunak.	Artículo 2.- Personas beneficiarias.
Onuraduntzat joko dira, arau hauetan erregulatutako laguntzetan, ezaugarri hauek betetzen badituzte:	Tendrán la consideración de personas beneficiarias de las ayudas reguladas en las presentes bases, aquellas que reúnan las siguientes características:
<ul style="list-style-type: none"> • 25 urte beteta edukitzea ikasketak hasteko lehen egunean. 	<ul style="list-style-type: none"> • Tener 25 años cumplidos a la fecha de inicio de los estudios .
<ul style="list-style-type: none"> • Erroldatuta egotea Arrasaten, gutxienez 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera. 	<ul style="list-style-type: none"> • Estar empadronadas en Arrasate, como mínimo, desde el 1 de enero de 2026.
<ul style="list-style-type: none"> • Lanbide heziketako ikasketak burutzen aritzea, bai ibilbide arautuan zein ez arautuan, beti ere oinarri hauen 1º-A artikuluko ezaugarriak betetzen dituzten ikasketak badira. 	<ul style="list-style-type: none"> • Cursar estudios de formación profesional, tanto reglada como no reglada, en acciones formativas que reúnan los requisitos referidos en el artículo 1º-A de estas bases.
<ul style="list-style-type: none"> • Langabezian egotea, gutxienez ikasketak hasteko datatik aurrera. <p>Ondorio horietarako, honako hauek joko dira langabetzat:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Erabat langabezian daudenak • Lanaldi partzialeko kontratua duten langileak, lanaldi osoko kontratu bati legokiokkeenaren herena baino gutxiagoko dedikazioa badute. <p>Era berean, ikasturtearen amaieran, egindako ikasketetatik eratorritako gastuen likidazioa aurkezteko unean, dagokion ikasturteko egutegiak adierazten dituen oporraldietan soilik lan egin duten pertsonen ere aitortutako dirulaguntza jasotzeko eskubidea mantenduko zaie, denboraldi horietan lanaldia edozein izan dela ere.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Hallarse desempleadas, al menos a partir de la fecha de inicio del curso. <p>A estos efectos, se considerarán en desempleo:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Las personas en desempleo total • Las personas trabajadoras a tiempo parcial, con dedicación inferior a un tercio de lo que correspondería a un contrato a tiempo completo. <p>Así mismo, al final del curso, en el momento de presentar la liquidación de gastos, se mantendrá el derecho a percibir la subvención reconocida a aquellas personas que hubieran trabajado sólo durante los periodos vacacionales que señale el calendario del curso, cualquiera que haya sido su jornada</p>

	laboral durante dichos periodos.
<ul style="list-style-type: none"> • Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda edukitzea gutxienez ikasketak hasteko datatik aurrera 	<ul style="list-style-type: none"> • Hallarse inscrito/a en Lanbide Servicio Vasco de Empleo, al menos desde la fecha de inicio del curso.
<ul style="list-style-type: none"> • Diruz lagunduko den ikastaroko saio presentzialen %80tara joatea eta horien aprobetxamendu egokia egitea. Ikasketxeak emandako asistentziaren eta aprobetxamendu egokiaren ziurtagiria aurkeztu beharko da hau dokumentatzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> • Asistir con buen aprovechamiento, como mínimo, al 80% de las sesiones presenciales propuestas por el curso de formación al que se refiere la solicitud de subvención, y presentar el certificado de buen aprovechamiento emitido por dicho centro.
3. Artikulua.- Zelan aurkeztu eskaerak.	Artículo 3.- Forma de presentación de las solicitudes.
Dirulaguntza eskabideak aurkeztu ahalko dira:	Las solicitudes de subvención podrán presentarse:
<ul style="list-style-type: none"> - Udalaren egoitza elektronikoaren bidez https://www.arrasate.eus/eu/tramiteak/eska-bide-orokorra (Pertsona juridikoek ezinbestean bide hau erabili beharko dute) 	<ul style="list-style-type: none"> - A través de la sede electrónica del Ayuntamiento, en la dirección https://www.arrasate.eus/es/tramites-online/portal-del-ciudadano (obligatorio para las personas jurídicas)
<ul style="list-style-type: none"> - Aurrez aurre BAZen (Herritarrentzako Arreta Zerbitzua), pertsona fisikoentzako aukerakoa. 	<ul style="list-style-type: none"> - Presencialmente en el BAZ (Servicio de Atención a la Ciudadanía), opcional para las personas físicas.
<p>BAZ, jendaurreko ordutegia:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Astelehenetik egubakoitzera: 7:30 - 15:00 - Eguenak: 7:30 - 18:30 - Zapatuak: 9:00 - 13:00 <p>Abuztuan astelehenetik egubakoitzera, 8:30-14:00</p>	<p>BAZ, horario de atención al público:</p> <ul style="list-style-type: none"> - De lunes a viernes 7:30 - 15:00 - Jueves: 7:30 - 18:30 - Sábados: 9:00 - 13:00 <p>En agosto, de lunes a viernes 8:30-14:00</p>
<ul style="list-style-type: none"> - Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako gainerako moduetan. 	<ul style="list-style-type: none"> - En las demás formas legalmente previstas conforme a la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.
Diru laguntzaren eskaerarekin batera, agiri hauek ekarri behar dira:	Junto a la solicitud de subvención, se deberá aportar la siguiente documentación:
<ul style="list-style-type: none"> • Eskatzailearen NAN/ANA/Pasaporte. 	<ul style="list-style-type: none"> • DNI/NIE/Pasaporte del solicitante.
<ul style="list-style-type: none"> • Eskatzailearen curriculum vitae, zeinak jasoko dituen lan esperientzia eta ibilbide akademiko osoak. 	<ul style="list-style-type: none"> • Curriculum vitae de la persona solicitante, que incluya experiencia laboral y bagaje académico completos.
<ul style="list-style-type: none"> • Diru laguntza eskatzen duenaren bizitza laboralaren agiri eguneratua, Gizarte Segurantzak emana. 	<ul style="list-style-type: none"> • Certificado actualizado de vida laboral de la persona solicitante de la ayuda, emitido por la Seguridad Social.
<ul style="list-style-type: none"> • Diru laguntza eskatzen duena langabe 	<ul style="list-style-type: none"> • Certificado de inscripción como

<p>moduan inskribatuta daudela adierazten duen agiria, Lanbide-Euskal Lan Zerbitzuak emana</p>	<p>desempleada de la persona solicitante, emitido por Lanbide Servicio Vasco de Empleo.</p>
<ul style="list-style-type: none"> • Dagokion prestakuntza ekintzan diru laguntzaren eskatzailearen inskripzio frogagarria. 	<ul style="list-style-type: none"> • Justificante de matriculación o inscripción de la persona solicitante de la subvención en la acción formativa correspondiente.
<ul style="list-style-type: none"> • Aurrekontua prestakuntza ekintzaren kostuei buruzkoa, formazio zentroak emana, kontzeptukako xehetasunekin (matrikula, hileko kuotak, material didaktikoa, babes equipo pertsonalak, etab). 	<ul style="list-style-type: none"> • Presupuesto de los costes de la acción formativa, emitido por el centro de formación, detallado por conceptos (costes de matrícula, mensualidades, material didáctico, equipos de protección, etc)
<ul style="list-style-type: none"> • Erantzukizunezko adierazpena beste diru laguntza batzuei buruzkoa, prestakuntza ekintza berberarengatik. 	<ul style="list-style-type: none"> • Declaración responsable relativa a otras subvenciones por la misma acción formativa.
<ul style="list-style-type: none"> • Zerga obligazioetan eta Gizarte Segurantzaren eguneratutako ordainketen agiria, diru laguntza eskaera aurkezteko uneari dagokiona. Honi dagokionez, Arrasateko Udalaren dirulaguntzen oinarri orokorren 7.g) artikuluan jasotzen den legez, 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak 28.artikuluan aitortzen duenari jarraiki, Arrasateko Udalak dokumentu hori kontsultatu edo eskuratu ahal izango du, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu. 	<ul style="list-style-type: none"> • Certificado de estar al corriente de pagos a Hacienda en el momento de presentar la solicitud de subvención. Respecto a este documento, según lo recogido en el artículo 7.g) de las bases generales de la convocatoria de subvenciones del Ayuntamiento de Arrasate, según lo reconocido en el artículo 28 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, el Ayuntamiento de Arrasate podrá consultar o recabar dicho documento, salvo que el interesado se oponga a ello.
<ul style="list-style-type: none"> • Beste dokumentu gehigarri batzuk, Arrasateko Udalak, beharrezko jota, kasu bakoitzean eskatu ditzakeenak. 	<ul style="list-style-type: none"> • Otra documentación adicional que el Ayuntamiento de Arrasate, estimándola necesaria, pudiera requerir en cada caso.
<p>4. Artikulua.- Eskaerak aurkezteko epea.</p>	<p>Artículo 4.- Plazo de presentación de solicitudes.</p>
<p>Eskaerak aurkezteko epea irekita egongo da 2026ko programaren deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta ondorengo egunetik aurrera, 2026eko urriaren 31 arte.</p>	<p>El plazo de presentación de solicitudes permanecerá abierto desde el día siguiente de la publicación de la convocatoria 2026 del programa en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, hasta el 31 de octubre de 2026.</p>
<p>Bestalde, azpimarratu behar da deialdi honetan aintzat hartuko dira 2025eko irailaren 1etik aurrera hasitako prestakuntza ekintzak.</p>	<p>Por otro lado, se subraya que esta convocatoria admitirá solicitudes para acciones formativas iniciadas a partir del 1 de septiembre de 2025.</p>
<p>5. Artikulua.- Gastuak, diruz lagundu daitezkeenak, eta diru laguntzen zenbatekoa:</p>	<p>Artículo 5.- Gastos subvencionables y cuantía de las subvenciones:</p>
<p>Diruz laguntzekoak kontsideratuko dira:</p>	<p>Se considerarán gastos subvencionables:</p>
<ul style="list-style-type: none"> • Prestakuntza ekintzaren beraren 	<ul style="list-style-type: none"> • Los costes de la propia acción formativa

kostuak (matrikula, hileroko ordainketak, material didaktikoa, eta abar)	(matrícula, mensualidades, material didáctico, etc...)
• Prestakuntza zentrorainoko joan-etorrien kostuak.	• Los costes de desplazamiento hasta el centro de formación.
Ekipo informatikoen eta antzekoen kostuak ez dira diruz lagunduko.	No serán subvencionables los costes de equipos informáticos y similares.
Programa honek diruz lagundu dezake eskatzaileak ordaindutako ikasketen gastuaren % 75 arte. 2026ko deialdiaren bitartez emango den diru laguntzaren zenbatekoa pertsonako eta prestakuntza ekintzako 2.000 €koa izango da.	Este programa podrá subvencionar hasta un 75% del gasto desembolsado por la persona solicitante para dichos conceptos. La cantidad máxima a otorgar mediante la convocatoria 2026 será de 2.000 € por persona y acción formativa.
6. Artikulua.- Izapide-unitatea, prozedura eta eskaerak ebaztea	Artículo 6.- Unidad tramitadora, procedimiento y resolución de solicitudes
Programa honen espedienteak tramitatzeko Enplegu Unitate administratiboa arduratuko da.	La tramitación de los expedientes de este programa corresponderá a la unidad administrativa de Empleo
Eskaerak lehiarik gabeko prozeduraz izapidetuko dira, hau da, aurkeztutako ordenan aztertu eta ebaztuko ditu Udalak, programaren kreditua agortu arte.	Las solicitudes se tramitarán según el procedimiento de concurrencia no competitiva, es decir, se resolverán por orden de presentación, hasta que se agote la consignación presupuestaria disponible al efecto.
Ebazpen hori behar bezala jakinaraziko zaio interesdunari, bai onartu bada, bai ez bada onartu ere.	Dicha resolución será debidamente notificada a la persona interesada, tanto si es aprobatoria como si no lo es.
Eskaerak edo harekin batera doazen nahitaezko agiriak akatsen bat izanez gero, edo baloratzen bada ez dagoela osorik, interesdunari epe bat emango zaio, hamar eguneko, Udalak egindako errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, antzemandako akatsak zuzentzeko. Emandako epea igarotzen bada horiek konpondu barik, atzera botako da diru laguntzaren eskaera, eta beste tramiterik gabe, artxibatu egingo da prozedura.	Cuando la solicitud o la documentación preceptiva que la acompaña presente algún error o se valore como incompleta, se otorgará a las personas interesadas un plazo de diez días, contados a partir del día siguiente al de la notificación del requerimiento efectuado por el Ayuntamiento para subsanar los defectos detectados. Transcurrido el plazo concedido sin que éstos hayan sido subsanados, se tendrá por desistida la solicitud de subvención, procediéndose sin más trámite al archivo del procedimiento.
7. Artikulua.- Gastua justifikatzea eta diru laguntzak ordaintzea:	Artículo 7.- Justificación del gasto y pago de las subvenciones:
Onartutako eskaerei diru laguntza ordainduko zaie prestakuntza ekintza bukatu eta gero.	El pago de las subvenciones previamente aprobadas se hará efectivo al término de la acción formativa.
Horretarako, diru laguntza aitortuta daukaten eskaerei lotutako ikastaroak bukatutakoan, interesatuak aurkeztuko dio	Para ello, una vez finalizado el curso cuya subvención hubiera sido reconocida, la persona interesada deberá presentar al

<p>Arrasateko Udalari aipatutako ikastaroa egiteak erakarri dizkion gastuen ordainagiri hauek:</p>	<p>Ayuntamiento de Arrasate la siguiente documentación justificativa del gasto soportado por la realización del curso:</p>
<ul style="list-style-type: none"> • Frogagiriak, ikastaroaren matrikula, hileroko ordainketak eta/edo, hala badagokio, material didaktikoa ordaindu izanarena, faktura bidez edo formazio zentroak emandako ziurtagiri bidez. 	<ul style="list-style-type: none"> • Justificación documental del pago de matrícula, mensualidades material didáctico, y/o equipos personales de protección, en su caso, mediante facturas o certificados emitidos por el centro de formación.
<ul style="list-style-type: none"> • Frogagiria, ikastetxerainoko joan-etorrien gastuarena. Joan etorrien gastuen erreferentziatzat hartuko da kasu bakoitzean ibilbide hori egiteko dagoen garraio publiko modurik merkeenaren prezioa. Horretarako, dagokion garraio publikoaren joan eta etorriko tiket bana aurkeztuko dira. Horrez gain, formazio zentroak emandako ziurtagiria aurkeztuko da, egindako kursoaren egun lektibo kopurua adierazteko, derrigorrezko praktika kurrikularretako egunak ere kontuan hartuta. 	<ul style="list-style-type: none"> • Justificante del gasto de desplazamiento. Se tomará como referencia el coste de dicho desplazamiento por el medio de transporte público disponible que resulte más económico en cada caso. Para ello se deberá presentar un billete de ida y otro de vuelta del medio de transporte público correspondiente, así como certificado emitido por el centro de formación acerca del número de días lectivos del curso, incluyendo los días requeridos para la realización de prácticas curriculares obligatorias.
<ul style="list-style-type: none"> • Ziurtagiria, aprobetxamendu onarena eta asistentziarena, prestakuntza zentroak emana, eskatzaileari buruzkoa, eta aipatuko da ikastaroaren iraupen guztizkoaren gaineko asistentzia portzentajea, eskola ordu guztiei buruz eta interesduna prestakuntza zentrorra joan den egunen kopuruari buruz. 	<ul style="list-style-type: none"> • Certificado de buen aprovechamiento y asistencia, emitido por el centro de formación, relativo a la persona solicitante, haciendo referencia al porcentaje de asistencia al curso respecto al número de horas lectivas totales y al número de días en los que la persona interesada ha acudido al centro de formación.
<ul style="list-style-type: none"> • Zerga obligazioetan eta Gizarte Segurantzaren eguneratutako ordainketen agiria, diru laguntzarekin lotutako formazioa amaitu onodorengo uneari dagokiona. Honi dagokionez, Arrasateko Udalaren 2024rako dirulaguntzen oinarri orokorren 7.g) artikuluan jasotzen den legeaz, 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak 28.artikuluan aitortzen duenari jarraiki, Arrasateko Udalak dokumentu hori kontsultatu edo eskuratu ahal izango du, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu. 	<ul style="list-style-type: none"> • Certificado de estar al corriente de pagos a Hacienda tras finalizar la formación objeto de subvención. Respecto a este documento, según lo recogido en el artículo 7.g) de las bases generales de la convocatoria 2024 de subvenciones del Ayuntamiento de Arrasate, según lo reconocido en el artículo 28 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, el Ayuntamiento de Arrasate podrá consultar o recabar dicho documento, salvo que el interesado se oponga a ello.
<ul style="list-style-type: none"> • Diru laguntzaren ordain kontuaren titulartasunaren egiaztagiria. 	<ul style="list-style-type: none"> • Documentación acreditativa de la titularidad de la cuenta de abono de la subvención.
<ul style="list-style-type: none"> • Bizitza laborala, ikastaroaren bukaerako datatik aurrera, non agerian geratu beharko da ikaslea langabezia egon dela kurtsoko iraunaldiaren %75a 	<ul style="list-style-type: none"> • Vida laboral, a partir de la fecha de finalización del curso, en la que se ponga de manifiesto que el estudiante ha estado en paro más del 75% del curso. Para su cálculo

<p>baino gehiago. Hori kalkulatzeko alderatu egingo dira bizitza laborean agertzen diren ikasketak burutu bitartean lana egindako egun osokoen kopurua, ikasketak hasi eta bukatu bitarteko egun natural kopuruarekin.</p>	<p>se comparará el número de días completos trabajados durante el curso en cuestión que figuren en la vida laboral, con el número de días naturales entre el inicio y la finalización de dicho curso.</p>
<p>Diru laguntza ordainduko da egiaztatutakoan lehengo agiriak, eta berariaz onartzen badu programaren administrazio unitate arduradunak. Justifikatutako gastuen konputoa eskatutako eta onartutako kopurua baino txikiagoa suertatuko balitz, Udalak egokituko luke diru laguntzaren zenbatekoa justifikatutako gastuaren arabera. Kontrako kasuan, hau da, justifikatutakoa onartutako aurreikuspena baino altuagoa balitz, Udalak berariz onartu beharko du diru laguntzaren zenbatekoa handitzea.</p>	<p>El pago de la subvención se hará efectivo tras la comprobación de la documentación referida, y su aprobación expresa por la unidad administrativa responsable del programa. En caso de que el montante de los gastos justificados sea inferior a la cantidad solicitada y aprobada, el Ayuntamiento realizará el ajuste oportuno de la subvención a abonar según el gasto justificado. En caso de que se justifique un gasto mayor al previsto en un principio, el Ayuntamiento deberá aprobar expresamente el incremento de la cuantía de la subvención a abonar.</p>
<p>8. Artikulua.- Programaren diru disponibilitatea</p>	<p>Artículo 8.- Disponibilidad económica del programa</p>
<p>2026rako deialdirako, programa honek 15.000 €ko zuzkidura du, eta 2026ko Udal Aurrekontuko 1.0710.471.241.10.00 "Langabeen Formakuntzarako Laguntzak" kontu sailaz baliatuko da.</p>	<p>La convocatoria 2026 de este programa cuenta con una consignación de 15.000 € que se canalizará a través de la partida 1.0710.471.241.10.00 "Langabeen Formakuntzarko Laguntzak" del Presupuesto Municipal 2026.</p>
<p>Ezarritako diru kopurua agortutakoan bukatutzat emango da programa, udalak propio erabaki ezean kreditua handitzea.</p>	<p>El programa se dará por concluido cuando su consignación presupuestaria se agote, a no ser que el Ayuntamiento expresamente decida aumentar dicho crédito.</p>
<p>9. Artikulua.- Bateragarritasuna beste diru laguntza batzuekin</p>	<p>Artículo 9.- Compatibilidad con otras subvenciones</p>
<p>Programa honetan aurreikusitako diru laguntzak bateragarriak izango dira beste laguntza batzuekin, erakunde publiko edo pribatuetatik datozenak eta diruz laguntzen badituzte kontzeptu berberak, betiere ez bada gertatzen gainfinantzaketarik; maila hori gaituz gero, programa honen bidez eman beharreko diru laguntza gutxituko da gainetik pasatutako kopuruan.</p>	<p>Las ayudas previstas en el presente programa serán compatibles con otras ayudas provenientes de organismos públicos o privados y que subvencionen los mismos conceptos, siempre que no se incurra en sobrefinanciación; en caso de superarse dicho umbral, la subvención a otorgar a través de este programa se reducirá en la cantidad sobrepasada.</p>
<p>10. Artikulua.- Araudi erregulatzailea</p>	<p>Artículo 10.- Normativa reguladora</p>
<p>Deialdi honetan zerbait xedatuta ez badago, aplikatuko zaizkio Arrasateko Udalaren diru laguntzak emateko Ordenantza, Diru laguntzen 38/2003 Lege Orokorra eta indarrean dauden gainerako arauak, gai honi aplikatu dakizkiokeenak.</p>	<p>En todo lo no previsto en la convocatoria, será de aplicación la Ordenanza reguladora de la concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Arrasate, la Ley 38/2003, General de Subvenciones, y demás normativa vigente aplicable a esta materia.</p>